

itsasondo^{2.0}

Herriko Aldizkaria ((40. zk)) Azaroa 2018



Ongizatea: Berdintasun topaketa
Elkarrizketa: Aitor Garmendia
Haur Transexualak



Hamar urte eta 40 zenbaki, hauek dira gure aldizkari xume honen ibilbidea laburbiltzen duten zifrak. Hasiere haiek eta zenbaki bakoitza kaleratzeak ekartzen dizkigun buruhausteak kontutan izanda, mirari bat iruditzen zaigu 40. zenbakira iritsi izana.

40 zenbaki hauetan jende askok jarri du bere aletxo aldizkaria aurrera atera dadin, batzuk lehenengo zenbakitik hasi eta hutsegiterik gabe zenbakiro izan ditugu gurekin; beste batzuk, aldiz, beraien zikloa edo tartea bete dute gurekin, eta asko eta askok ITSASONDO 2.0. proiektua posible izan dadin, zenbakiren batean beraien lana eta laguntza eskaini digute. Den-denei mila esker, zuen ekarpenik gabe ez bailitzateke posible izango iritsi garen lekura iristea. Bestetik, ITSASONDO 2.0. aldizkariak ez du zentzurik, beste aldean inor topatzen ez badugu: irakurleei eta herritarrei eskerrik asko zuen etxeetan txoko bat egiteagatik.

Zenbaki borobil batetara iristen garenean, garrantzitsua da hausnarketarako tarte bat hartu eta ibilbideari buruzko gogoeta egitea zein aurrera begirako asmo eta erronkak ezartzea.

Une horretan aurkitzen gara gu ere, baditugu asmo eta ideiak, baina horiek gauzatzeko jende eta molde berriak ere ez litzaizkiguke batere gaizki etorriko. Badaukagu gai hau behar bezala ospatzeko asmoa, hobetzeko asko dagoela jakitun izanik ere, lortutakoa ere ez delako makala eta gure buruari meritu txiki hau opa diogulako.

Honelakoetan esaten den bezala, ondo esanak gogoan hartu eta gaizki esanak barkatu.

Aurrera jarraitzeko asmoarekin gaude, gainera; hemendik geure buruari eta zuei ere botatzen dizuegun erronka honakoa da: 50 baietz!

Denbora izango da lekukoa.

Bitartean bizi bizitza, eta, bide batez, ez ahaztu ITSASONDO 2.0. aldizkaria irakurtzeaz. ■



Aurkibidea

- 03-04. **Udaleko berriak**
- 05. **Haurreskola**
- 06. **Eskola**
- 07. **Gaztelekua**
- 08. **Jubilatuak**
- 09. **Guztion herria**
- 10-11. **Ongizatea**
- 12. **Elkarrizketa:** Oihane Larraza Mateos
- 13-14. **Guraso elkarte:** haur transexualak
- 15. **Informatika:** harpidetza bidezko plataformak
- 16-19. **Elkarrizketa:** Aitor Garmendia
- 20-25. **Hemeroteka**
- 26. **Natura**
- 27. **Errezeta / Euskararen atala**
- 28. **Oharrak / Kultur agenda**

Sarrerako bertsoak

Doinua: *Bizkaiko txerriarena*

Eskolako kontuak datoz bizi-bizi gurasoen kezketan haurtxoak lehenbizi; ume transexualak zertako berezi? mugimendua eta energiaz hezi... gune librean baietz osasuntsu bizi.

Herritarren oinarri guztien gainean ongizatea landu berdintasunean! Bizikidetz dago maila gorenean itxuraz garatzeko behar den uanean bereizketa gabeko eredu xumean.

Gazteria aurrera! betiko kontua... sendotu nahian dator abiapuntua, komunikatzea da hurrengo puntua euskaraz altxatzeko hau da momentua hitzekoa izango den gaztelekua.

Udaleko berriak

2018ko azken hilabeteetan gauden honetan, udalean egiten ari diren egitasmoen berri emango da jarraian:

Udal batzarrak

Azken aldizkaria argitaratu zenetik egin diren udal osoko bilkuretan tratatu diren gaien azalpena da honakoa:

Martxoaren 27an

- Lankidetz hitzarmena sinatu dute Idiazabalgo, Zaldibiako, Legorreta eta Itsasondoko udalen artean, musika eskola zerbitzua Itsasondon emateko, eta kontratazioa eta kudeaketa gauzatzeko.
- Katalunian izandako azken gertaeren ondorioz, kargu politikoak atxilotu izana gaitzesten duen EH Bilduko adierazpen instituzionala onartu zen.

Apirilaren 16ean

- Errota frontoiaren berrikuntza lanak kontratatzeko plegua onartu zen.
- Hiri Antolamenduko aldaketa zehatza hasierako izaeran onartu zen.
- Murumendi aldean 25 hektareako azalera duten bi sailen erosketa onartu zen 45.000 €tan.

Maiatzaren 28an

- Itsasondoko Errota frontoiaren obren kontratazioa Urbycollan enpresari esleitzea erabaki zen, 305.674,60 €tan, BEZ barne.
- Itsasondoko bake-epaile titular eta ordezkoen kargurako eskaerak egiteko deialdia egitea onartu zen.
- Itsasondoko herri bideen inbentarioa hasierako izaeran onartu zen.
- Nagusia 7, 2. solairuan hutsik dagoen etxebizitza errentan jartzeko espediente bideratzea onartu zen.
- Etxez etxeko zerbitzua prestatzeko foru aldundiarekin hitzarmena sinatzea erabaki zen.
- 2018ko aurrekontuan kredituak aldatzeko espediente onartu zen, eta 26.300 €ko zenbatekoa du.

Uztailaren 23an

- Itsasondoko bake-epaile titular eta ordezkoen kargurako proposamena egin zen.
- Nagusia 7ko 2. solairuko etxebizitza errentan jartzea erabaki zen.
- Hondakinen kudeaketa hobetzeko, Itsasondoko Udala "Hobeki" elkarteko kide egitea erabaki zen.



Abuztuaren 3an

- Musika eskola zerbitzuaren araudia eta kobratu beharreko prezio publikoen eranskina onartu zen.

Alkate dekretuak

- Apirileko fakturen zerrenda onartu da: 78.091 €.
- Maiatzeko fakturen zerrenda onartu da: 43.763,64 €.
- Ekaineko fakturen zerrenda onartu da: 22.414 €.
- Uztailako fakturen zerrenda onartu da: 18.312,58 €.
- Abuztuko fakturen zerrenda onartu da: 13.452,94 €.
- Zortzi eskari egon dira herriko elkarte eta eragileen partetik, udaletxeko kulturgunea eta lokalak erabiltzeko.
- 2018ko 1. hiruhilekoko ur errolda onartu da: 13.175,87 €.
- 2018ko 2. hiruhilekoko ur errolda onartu da: 14.315,56 €.
- 2018ko 1. hiruhilekoko zabor bilketako errolda onartu da: 17.793,18 €.
- 2018ko 2. lauhilekoko zabor bilketako errolda onartu da: 17.594,40 €.
- Larrialdi laguntzak onartu dira: 3802,38 €.
- Kreditu aldaketa espedienteak onartu dira: 10.000 €.
- Obra txikien bederlatzi lizentzia eman dira.
- Lehen erabilera baimena bideratu da.
- Udal eraikinen suteen mantenturako zerbitzua kontratatu da, Foru Aldundiko kontratazio sistemaren bidez.
- Hilerrian kontzesioak egiteko zazpi espediente onartu dira.
- Mugikortasun arazoak dituztenentzat hiru aparkaleku txartel tramitatu dira.
- Garagardo azoka egiteko baimena eman zaio Arbelaitz elkarteari.
- San Joan suaren inguruko jaia antolatu eta egin da.
- Euskarazko ikastaroak egin dituzten bi bizilagunei diru-laguntzak eman zaizkie: 507 €.
- Herri-bideetan zehar egurrak garraiatzeko baimen bat eman da.
- Kamioentzat libre zeuden hiru aparkaleku esleitu dira.
- Eraikinen ikuskaritza teknikoaren sei espediente tramitatu dira. Guztira, orain arte udaletxean aurkeztu diren EIT espedienteak 22 izan dira.

Jasotako dirulaguntzak:

- Anbulatorioan pintaketa lanak egiteko diru-laguntza.
- Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapeneko departamentuak "Erein" deialdian 149.499,87 €ko laguntza eman du, Errota Pilotalekuan irisgarritasun arazoa konpontzeko. Lehendik ere foru aldundiak 162.000 € agindu dituzenez, udalak jarri beharreko kopurua asko murriztuko da.
- Itsasondo 2.0 aldizkaria argitaratzeko gastuak estaltzeko Aldundiak 1.500 €ko laguntza agindu du.
- Saroko errepidean egin beharreko konponketa lanak egiteko 2.331,79 €tako laguntza jasoko da.
- Langabezia dagoen langile bat bost hilabetez kontratatuzeko, Lanbidek 11.175,30 €ko laguntza eman du. Deialdia azaro-abenduan egingo da, eta kontratatutako langileak deialdian ezarritako irizpideak bete beharko ditu.
- Jarduera fisikoa sustatzeko aldundiak 396 €ko laguntza emango du.
- Agenda 21 proiektuaren baitan, Itsasondoko ekintza plana eguneratzeko 5.175 € emango ditu Eusko jaurlaritzak.
- Artxibo historikoa berrantolatuzeko behar den diru-laguntza jasoko da: 7.260 €, Eusko jaurlaritzatik.
- Urkian natura eta giza baliabideak areagotzeko proiekturako Onddoen basogintza eta elkarteko proiektua diruz lagundu da %60an: 13.200 €, Eusko jaurlaritzatik.■



Kanpo espazioa

Kanpo espazioa heziketarako gune bat da, bertan haurrek harreman sozialak eta balioak garatuko dituzte, aldi berean guztien premiak eta interesak asetzeko. Sarritan mugimendu asko ematen da bertan, energia askatzeko gunea baita. Gure haurreskolan kanpo espazioak garrantzia handia du, haurrek oso gustuko dutelako bertan jolastea, haizea hartuz eta oxigenatuz. Gainera, adin horretan energia handia izaten dutenez, mugimendua behar-beharrezkoa dute. Horregatik, eguraldi ona dagoen guztietan kanpoko gunea zabalik egoten da, haurren interesei eta garapen momentuari egokitu. Haurrak autonomia edukiko du kanpora irten edo sartu nahi duen erabakitzeke.

Askotan, gune hauetan espazio publikoko rolak eta balioak erreproduzitzen dira; gure barneko premiak, nahiak, interesak eta desioak azaltzeko eta asetzeko aukera eman beharko lukete. Horretarako, kanpo espazioak ezaugarri hauek betetzea komeni litzateke:

1. Mugimendua sustatuko duen espazioa izatea: psikomotrizitatea garatzeko eta mugitzeko aukera emango dieten eremua. Honek korrika egiteko, saltoka ibiltzeko... aukera eman behar du.
2. Espazio naturalak eta hondartegia: Adin horretan, batez ere, naturarekin kontaktua izatea garrantzitsua da. Zentzu horretan, jolaserako, esploraziorako eta esperimentazio indibidualerako nahiz kolektiborako aukera ematen duen eremua hondartegia izaten da. Komenigarria izango litzateke gune berdeak edukitzea, eta bertan egurra, harria, eta landareak egotea.
3. Jolas sinbolikorako eremuak: Haurren garapenaren fase batean jolas-sinbolikoak berebiziko garrantzia hartzen du. Beraz, adituek horretarako eremuak ezartzea aholkatzen dute. Beti ere, material egituratu gabeak eta naturalak lehenetsita eta, aldi berean, era bateko zein besteko txokoak, gordelekuak eta intimitatean egoteko eremuak sortuta.



4. Mahai jokoak eta jolas lasaiak: Haur batzuk lasaiagoak izaten dira eta gune lasaietan egotea gustuko dute. Horiei ere aukera eman behar zaie.

5. Kirola eta jolasak: Belaunaldiz belaunaldi transmititu diren jolasak egiteko aukera: Harrapaketa, ezkutaketa...

Azken batean, kanpo espazioari garrantzia eman behar zaio, eta espazio hori denona dela eta arlo guztiak lantzeko erabiliko dugula ulertu behar dugu. Haur guztiak sentitu behar dira protagonista. Beraz, denen premiei erantzuteko modua bilatzea eta haur guztiak barne hartuko dituen espazioa eraikitzea ezinbestekoa da. Horretarako irizpide batzuk jarraitzea komeni da:

- A. Genero berdintasuna bermatzen duen eremua izatea.
- B. Esperimentazioko gunea izatea.
- C. Haurra bera izan dadila espazio hori edukiz betetzen duena.

Prozesu honek sarritan eraldaketa dakar, harreman horizontalagoak sortzen direlako eta ordura arte isilik egon diren ahotsak entzun egiten direlako.■

Ongi etorri eta gero arte!

Azken asteetan, elkartu zaizkigun sentimendu, esamoldeak... dira honakoak:



Poz handiarekin jaso dugu hiru haur berrien "ONGI ETORRIA", eskolako atea, gelak eta jada, bihotzak irekita.

Bestetik, bi "GERO ARTE" izan ditugu. Horrek bi sentimendu ekarri dizkigu gure barrura: tristura eta poza.

Izugarrizko poza sentitu dugu Xanti eta Liher urteetan gure artean izateko aukera izan dugulako. Tristura, ordea, beste eskola bateko atea eta beste irakasle nahiz beste lagunen bihotzak irekiko dituztelako, gure garaian egin zuten moduan.

Horrelako egoeretan, burura etortzen diren burutazioak beraiekin JOLASEAN ibilitakoak dira. JOLASA; patio garaian, matematikan, gaztelanian, irteeretan...

Jolasa adierazteko modu bezala, jolasa ikasteko, jolasa harremantzeko...

Agur esan diguten haur horiek jostari oso onak izan direla adierazi nahi dugu.

Orain ERRONKA datorkigu, beste hiru txikirekin eta bertan ditugunekin.

Ea joan diren haurren modura, jolasten ikusi, ikasi, maitatzen ditugun, dituzten... eta "gero arte" esatea iristen den unean, Liher eta Xantik zituzten begirada berak ikusten ditugun! ■



Gaztelekua martxan jartzera goaz!

Itsasondoko haurretatik hasi eta gazteak arte bilduko dituen mugimendua sortzea da helburua, eta abiapuntua gaztelekua izango da. Mugimendu izatearekin, esan nahi dena da ez dela leku batera mugatuko, eta herriko eragile erreferente izango den herritar hezitzaileak izango dira beraren motorra edo talde eragilea, Udaleko teknikari eta zinegotziekin elkarlanean.

Herriko baliabideekin, mugimendu honetan Itsasondoko etorkizuneko oinarri izango diren gazteak formatzeko eta sartzeko modua egin nahi dugu. Honetan ez ditugu ahaztu behar Guztion Herria batzordean, herrira begira adostutako printzipioak:

- Identitatea (Nortasuna, euskalduna eta langilea): Herri irekia, historia (ondarea) – lotura, kritikoa/koherentea, euskalduna, alaia/bizia, kultura, ameslaria, antolatua, ahaldundua.
- Guztion herria (Aniztasuna): aukera berdintasuna, ingurumena, entzunak sentitzea, aske sentitzea, babes-tua/maitatua sentitzea, trukaketa, bizi-kalitatea, osasuna/kirola.
- Herri txikia (Ezaugarri bereziak): errealista/orekatua, konformista (errealista).
- Herriari begiratzen dioten herritarrak nahi ditugu: elkartasuna, inplikazioa/konpromisoa, interakzioa, arrerakoia, parte-hartzailea.

Hori guztia kontuan hartuta, herriko hezitzaile diren Mainer Zabalu, Aiora Zurutuza eta Ainara Vega izango dira gaztelekuaren antolakuntza eramango dutenak, eta lehendabiziko eguna urriaren 19an izan zen arren, oraindik zure zain gaude.

Honenbestez, 12 urtetik gorako gazte guztiei deia egiten dizuegu! Gurekin batera, herria mugitu, aktibatu, gozatu eta gozarazi nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan itsasondogaztelekua@gmail.com helbide elektronikoa! ■



Bertoak

Doinua: *Badira hiru aste*

Haurren herria esan ziguten badirela bost bat urte. Baina denborak ihes eginda bilakatu ziren gazte. Barne bulkadak jarraitu nahian txoko bila jarri ziren eta udaletxeko sarreran gatibu geratu ziren.

Kanpandorrearen itzalpera etorri zaitzete gaztek. Lagun eta begiraleen beroa izango duzue hemen. Sukaldari eta zineasta bilakatu gaitzete. Ta urriaren hemeretziaren ea elkartzten garen!

Tipi-tapa, bizi nahi elkarte aurrera doa

U da garaia deskantsurako eta eguraldi onarekin indarrak biltzeko aprobetxatu dugu herriko jubilatuek elkartekoek. Tarteetan, abuztuan nahitaezko hitzordua izan genuen, amahirjin bezperako bazkaria. 40 bat lagun elkartu ginen Bizi-Nahi elkarteetan, eta honako menua izan genuen: entsalada, bakailaoa saltsan eta ijito besoa.

Irailarekin batera, martxan hasteko garaia heldu zaigu, eta lehendabizi jaiei hasiera emateko herriko txikiekin batera merendola ederra izan genuen. Torrada goxoekin batera, honako bertso ederra oparitu ziguten, gainera, hau poza!

Doinua: *Habanera*

Orduak aurrera doaz
eguneroko bizitzan
eta denbora horretan
gure ikasketa bertan
eta ondoan ditugu
beti guri ematekotan
Itsasondokoak dira
guztiz jatorrak benetan
Ondare ederra dugu
gure eskola honetan
aiton amona guztioi
egin Gabe zalantzetan
omenaldi xume honekin
bizitzak iraun dezan
bikain jarrai ezazue
gu guztion altxorretan



Jaien ondoren, berriz, Irailaren 30ean jubilatuek eguna ospatu genuen, egitarau honekin:

Goiz erezia txistulariekin.

11:00 Meza Nagusia.

Ondoren hamaiketakoa.

14:00ak aldera bazkaria.

Bazkalostean udaleko ordezkariak oroigarriak banatu zituzten eta ederki pasatu genuen.

Festa ondorenean, urtero legez, ostiraletako pintxo potean gure aletxoa jarri genuen, Bizi Nahi elkarte irekita egon baitzen nahi zuenarentzat, patata tortila goxoa jateko.

Baina dena ez da festa! Aldarrikapenerako tartea ere hartu, eta parte hartu dugu Gipuzkoako pentsionisten elkar-teak deituta, pentsioen defentsan egin den herriz herriko martxan ere. Itsasondotik ere pasa zen, eta herriko alkateak harrera egin zion martxari. Adierazpena irakurri, eta Legorretarako bidea hartu genuen. Gipuzkoako hainbat herritatik igaro ondoren, urriaren 6an Donostian amaitu zen aldarrikapen martxa hau.

Horrez gain, aipatu behar da ikasturtean zehar egiten ditugun ekintzak ere berrartu ditugula. Batetik, tipi-tapa asteartero arratsaldeko bostetan hasita; eta, bestetik, memoria tailerra, hileko azkeneko asteazkenetan. ■



Gipuzkoako jubilatuen XXVIII. Ibilaldi Neurtua

U rriaren 20an Gipuzkoako jubilatuek XXVIII. Ibilaldi Neurtua egin genuen Legorretan eta Itsasondon. Bi herri txiki hauentzat erronka handia bazen ere, primerako antolakuntzari esker, egun borobila izatea lortu genuen. 600 lagundik gora etorri ziren gurera eta ibilaldiaren ondoren, Itsasondoko plazan hamaiketako ederra egin eta Legorretara itzuli ginen jaiari jarraipena emateko asmoz.

Itsasondoko Jubilatuek Elkarteak kideok eskerrak eman nahi dizkizuegu larunbatean lanean ibili zineten herriko bolondres guztiei eta baita parte hartu zenuten jubilatuek guztiei ere. Mila esker guztioi! ■



Itsasondo, guztion herria!

U rte batzuk igaro dira Haurren Herria egitasmoa martxan jarri genuenetik. Hasiera batean proiektu hori haurrei begira egin bazen ere, pixkanaka, bilakaera natural baten bitartez, herriko hainbat espaziotara zabaldu da, eta horrek ikuspegi zabalago batetik lan egiteko aukera emango digulakoan, ITSASONDO, GUZTION HERRI bilakatzeko lanari ekin diogu, ilusioz eta gogoz!

Guztion Herria dinamikaren oinarria eskolak hezkuntza proiektua berritzearen baitan egindako lanketatik dator. Hezkuntza komunitateak, printzipio batzuk finkatu eta horietan oinarrituz lan egiteko konpromisoa hartu zuen; bide horretan, udalaren baitan lanean ari garenek ere printzipio horiekin bat egin eta filosofia horretara gehitzeko aukera paregabea ikusi dugu, hezkuntza komunitatetik harago, herriko dinamiketara ere zabalduz.

Guztion Herriak lantalde polita sortu du, udaleko lantaldeetako kideez gain, norbanakoak zein eskola eta haurreskolako ordezkariak ere elkartzen baikara. Zentzu horretan, azpimarratu nahi genuke atekak irekita daudela parte hartu nahi duen edonorentzat. Gure helburu nagusia,

Itsasondo guztion herri bilakatzea izango da; eta, horretarako, ezinbestekoa izango zaigu begiradaren norabidea haurrengan jartzea, herri honen etorkizuna baitira; baina baita zaharrengan, herrian jaio ez direnengan, zailtasun ekonomikoak dituztenengan, herrian harreman gutxi dutenengan... ere, askotan horien beharraz ahaztu egiten baikara.

Lanketa honetan, bi ildo jorratuko ditugu: alde batetik, gure jarduna praktikara eraman eta herriaren mesedetan lanean ari garenek elkartzeko balioko digun gaia, aurten kulturartekotasuna izango dena. Bestetik, herri prozesu bat martxan jarri berri dugu guztion artean etorkizuneko Itsasondo marrazteko. Prozesu horren zati garrantzitsu bat herriararon iritziak izango dira, eta horretarako diagnostiko kualitatibo eta sakon bat egingo dugu, ahalik eta itsasondoar gehienen iritziak jasota. Beraz, iritzi horiek jasotzeko egingo diren deialdietan parte hartzera gonbidatu nahi zaituztegu, baita Itsasondo Guztion Herria izan dadin, antolatuko ditugun dinamiketan ere. ■



Berdintasun topaketa

Ez al zara ausartzen? Zu baino neska ausartagoak ezagutzen ditut! Kasu gehienetan emakumeak lan-jarduna murrizten du etxeko eta umeen arduraren hartzeko, bide profesionalari uko eginez.

Mutilek ez dute negar egiten, ez da ezer izan, garbitu malko horiek.

Etxeko konponketaren bat egitera datozenean galdetzen baldin badute: ‘Ez al dago zure senarra etxean?’ nire erantzuna hauxe izaten da: ‘Ez, gizajoa hil zen.’

Atzazkalak margotuta? Kamiseta arrosa jantzita? Panpinekin jolasean? Zu mutila zara, ordea!

Kontuz parrandan, horrela jantzita zoaz kalera? Ez probokatu, kontuz etxerako bidean.

Ongizate batzordeak parekidetasuna lantzeko egun osoko ekintzak antolatu zituen ekainaren 30ean. I.Topaketa Eguna izan zen.

Goizean zehar gizon eta emakumeek, hasieran banaturik eta ondoren denak batera, parekidetasunaren gaiari heldu zioten Jokinen eta Haizearen laguntzaz. Hauek dira beste askoren artean, egun horren harira, utzi dizkiguten hitzak:

“Hainbat adin eta perfileko hamabost emakume eder bildu gara. Gure gorputzen kontzientzia hartzea izan da gure eginkizunetako bat, norbanako gorputzari arreta jarri, kolektiborako kontzientzia jabetza eraikiz. Emakumeak bildu eta elkarlanaren potentziaz jabetzea izan da beste lanetako bat. Tratu onean entrenatzea gure burua zaintzeko bide gisa kokatu dugu”. Haizea.

“Izugarria iruditu zitzaidan honelako herri txiki batean horrenbeste gizon topatzea. Normalean ez da erreza izaten gizonak elkartzea barne hausnarketarako... kanpo hausnarketarako ohituagoak gaude-eta. Zoragarria da ikustea udaletxeak horrelako topaketak ahalbidetzea. Udaletxearen gizatutasuna erakusten du proposamen honek”. Jokin.

Eskerrik asko bioi!

Horrez gain, herriko haurrek murala margotu zuten, batukadak girotutako poteoa izan genuen, herri bazkaria ondoren, mikrometrage emanaldia eta, eguna bukatzeko, dantzaldia eta hanburgesa jana.

Parekidetasunari keinu paregabea eskaini zioten herritarrek!

DENON ARDURA DELAKO, segi bide horretan! ■

Aita Mari itsasontzira bisita

Urkipe eskolako 48 ikasle eta haien irakasleak Aita Mari itsasontzia barrutik ezagutzera joan ziren, eta operari moduan, beraiek sortutako ipuin bilduma ederra eman zieten bertako itsasgizonei. Esperientzia ederra izan zen.

“Aita Mari” giza erreskaterako itsasontzi bat da, eta Maydayterraneo izeneko proiektuaren baitan kokatzen da. Arrantza-ontzi hau birgaitu eta prestatu egin dute Libiako kostaldean erreskate-misioak egiteko. Giza erreskateak egiteaz gain, ospitaleko materialaz hornituta egongo da, porturatuta dagoenean osasun-laguntza emateko. ■



Errefuxiatuen gaia lantzen Itsasondon

Katilu solidarioak kanpaina, janari bilketa eta itsas salbamendu humanitarioa (smh / maydayterraneo / Aita Mari itsasontzia)

Maiatzan

Itsasondoko Ongizate Batzordeak Hotz Legazpi taldeari erreleboa hartuta "Katilu Solidarioaren" kanpaina martxan jarri zuen Itsasondon. "Nik iada badut nirea... eta zuk?" lemarekin eutsi zioten.

Arima handia duen proiektua da hau, Atenasen, Grezian dauden haur errefuxiatuek egindako marrazkiekin batera jaiotako kanpaina ederra: CREARTE proiektua, hain zuzen.

Franek, Toledoko azken buzingileak, katiluei forma ematen die eta Inesek, zeramikari asturiarrak, Atenaseko haur errefuxiatuek Victoria Gizarte Zentroko tailerretan egindako marrazkiak egokitzen ditu.

Ekainean

Katiluak 10 €tan saldu ziren eta guztira 425 Katilu banatu ziren. Lortutako dirua bi proiektuetara zuzendu da:

- 1.700 € SOS Errefuxiatuak Sarean (Victoria Gizarte Zentroa, Atenas)
- 1.275 € Itsas Salbamendu Humanitarioa (Maydayterraneo)

Zaldibian eta Legorretan ere Katilu Solidarioak saldu dira, elkartasun kate hau luzatuz.

Salmenta mahaia jarri zen eta, honekin batera, janari bilketa egin zen, kasu honetan, Zaporeak Elkartera bideratuta. Jendeak bertara gerturatu zituen elikagaiak eta hemendik Zaporeakek duen biltegira eraman genituen.

"Elkartasun Kiloak" aportatu genituen Itsasondotik!

Uztailean

SMH-koei donazioa egin genien SOS Siria Urretxu-Zumarraga, Legorreta, Zaldibia eta Hotz Legazpikoekin batera. Itsasondon kanpaina amaitutzat eman ondoren, beste herriekin elkarlanean jarraitu dugu kanpaina honek etenik izan ez dezan.

Kafez, esnez eta infusioz bete dira Legorretan, Zaldibian, Urretxun, Legazpin eta Itsasondon saldutako 1025 katilu baino gehiago.

Katiluek merezi dutela dudarik ez daukagu eta tantaz-tanta katiluak elkartasunez betetzen doaz...

Katilu Solidarioen salmentaren zati bat Maydayterraneo proiektura bideratu genuen, SMH-koak egokitzen ari diren Aita Mari itsasontzira.

Itsasoan behar ditugu!



Irailean

Irailearen bukaeran, Aita Mari itsasontzia (SMH / Maydayterraneo) prest zegoela jakinarazi ziguten, ate irekietara gonbidatu eta Itsasondoko zatitxo handi bat bertara eraman genuen. 2017ko errefuxiatuen jaialdian ateratako herriko argazkiaren banderola bertan baitago.

Urrian

SMH-ko (Maydayterraneo) Aita Mari itsasontzia prest dago Mediterraneora errefuxiatuen laguntzara abiatzeko, baimen batzuen zain dago.

Ezin genuen aukera hau galdu eta gure eskolako umeak bertara joan ziren Aita Mari itsasontzia ezagutzera.

Urkipe eskolako haurrek ipuin eleanitz ederrak sortu dituzte eta itsasontzira eraman dituzte. Helburua, errefuxiatuei ekarpen txiki honekin une latz horiek arinagoak izaten laguntzea da. Bidebatez, gure haurrek egungo errealitatea gertuago bizitzeko aukera izango dute proiektu handi honen partaide izango baitira.

Mila esker bihotzez proiektu honetan sinistu duzuenoi eta era batera edo bestera sentitu eta partekatu duzueno (zuen lantokietara eramanda, lagunaren artean zabalduz, beste herriak inplikatur, ...) Gauza handia da denon artean egiten ari garena.

Esker bereziak itsasondoar guztiei orain arte erakutsitako elkartasunarengatik, Urkipe Herri Eskola-ri beti prest egoteagatik, Hotz Legazpi taldeari eskainitako laguntzagatik, Zaporeak-i jasotako erretasunagatik eta SMH-ri emandako gertutasunagatik.

"Ateak zabaltzen dituztenak beharrezkoak dira atekak ixten dituztenak dauden bitartean"

Herriak Herria laguntzen duen horretan sinisten dugu... Lanean jarraitzen dugu ■

Oihane Larraza Mateos

Astigarragan jaio zen, 1986an. Bertan bizi izan da orain dela gutxi arte. Aldaba-Zaharra baserrian bizi izan zen sei hilabetez, eta handik Itsasondora etorri zen, orain dela sei hilabete. Baserri bila zebiltzan, eta Itsasondon aurkitu zuten. Iraola Txiki baserrian bizi da orain.

Autokudeaketan sinesten dute, eta horretan lan egiten dute; horrela garagardoa egiten hasi zen orain dela bi urte. Hectorrek, bere bikotekideak, bost urte daramatza garagardoa egiten. "Herri Birra" izena jarri diote Iraolan egiten dutenari.



Noiz etorri zinen Itsasondora?

Orain dela gutxi, bost-sei hilabete daramatzat bertan bizitzen.

Non bizi zinen lehen?

Berez Astigarragan jaiotakoa naiz, gero Aldaba-Zaharra baserrian bizi nintzen, eta handik Itsasondora etorri nintzen bizitzera.

Zergatik erabaki zenuen Itsasondora etortzea?

Baserri batean bizitzeko aukera sortu zen, eta aprobe-txatu egin nuen. Izan ere, ez da erraza, baserriak ez daude jende gaztearentzako irekiak.

Zer gogoratzen duzu etorri zinen lehen egunaz?

Hitzik gabe gelditu nintzen, baserrian bizitzeko gogo handia nuen eta Iraolan aurkitu nuen aukera. Sineste-zina izan zen.

Zer lanbide duzu?

Orain arte Gizakia Helburu egitasmoan lana egiten nuen (Proyecto Hombre, gaztelaniaz).

Astigarragako zeren falta sumatzen duzu?

Familiaren gertutasunaren falta sumatzen dut, nahiz eta badakidan bertan daudela.

Zer ez zaizu gustatzen Itsasondotik?

Errepideko soinua eta landaguneko errepide zein pisten egoera.

Eta zer duzu gustuko?

Itsasondok aukera eman digu sare bat sortzeko, inguru-ko baserrietako lagunekin elkarlanean eta auzolanean.

Zein zaletasun dituzu?

Artisautza maite dut: xaboiak, ukenduak, pitxiak... egiten ditut. Kozinatzea ere oso gustuko dut, kontserbak, marmeladak eta bestelakoak egiten ditugu baserrian.

Janari bat.

Albondigak.

Itsasondoko edo Goierriko gustuko txoko bat.

Murumendiko zona.

Amets bat?

Hazten jarraitzea.

Jaso duzun oparirik bereziena?

Denbora.

Zer da gustatzen zaizuna?

Proiektu autokudeatua sortzea.

Zerk sortzen dizu irribarrea?

Gauza eta momentu sinpleek. Ez dut ezer berezirik behar irribarre egiteko.

Itsasondon biziko ez bazina?

Beste baserri batean. ■

Haur transexualak

Gizakiok, oro har, gizon edo emakume sentitzen gara, eta Funtsezko Sexologia fenomeno hau ikertu eta ulertzen saiatzen da.

Mutil edo neska bezala errekonozituak

Neskak, neskak izanik, neska sentitzen dira, eta neska bezala etiketatuak izan nahi dute. Mutilak, mutil sentitzen dira, eta haiek ere mutil bezala onartuak izan nahi dute.

Norbait mutil edo neska bezala identifikatzeko, ohikoa da hainbat ezaugarri kontutan hartzea: ilearen luzera, genitalak (zakila ala bulba), gorpuzkera, aurpegiaren formak, arropa estiloa, apaingarriak... eta, gehienetan, asmatu egiten dugu. Neska dirudi, eta neska da. Mutila dirudi, eta mutila da.

Erratu egiten gara esleipenean

Haur bat jaiotzean, zakila eta barrabilak ikusi eta mutiltzat joko dugu. Edo bulba ikusi, eta neska izena jarri. Eta, tamalez, batzuetan, hanka sartuko dugu. Izan ere, zientziak ez ditu adierazle fidagarriagoak sortu momentuz. Gerta daiteke, haur baten gorpuzkerak ibilbide maskulinoa hartu izana, baina berak, urte batzuen buruan deskubritzea neska dela. Hori horrela izanik, besteei jakinarazten saiatuko da, dakizkien modu guztiak erabiliz.



Argazkiaren oina: Sexu rol malguek haurren aniztasuna errespetatzen dute.

Intersexualak gara baina bi etiketa erabiltzen ditugu

Gizaki guztiok ezaugarri maskulinoak eta femeninoak ditugu, denok horien konbinazioa dugu eta bilakatzen doa bizitzan zehar. Fisikoak, fisiologikoak, hormonalak, emozionalak, kognitiboak eta abar izan daitezke. Horregatik, intersexualak garela esaten da Funtsezko Sexologiatik. Paradoxikoki, aldiz, gizakiak etiketatzerakoan, bi kategoria disjuntibo erabili ohi dira (gizona baldin bazara, ezin duzu emakume izan, eta alderantziz). Ez soilik besteak etiketatzerakoan, baita norbera etiketatzerakoan ere.

Garunaren papera

Anek 4 urte ditu, deskubritu du mutila dela, aurreikuspen guztien kontra. Besteak etiketatzeko orduan aurrez aipatu-tako ezaugarri klasikoak erabiltzen ditu guztiok bezala, baina bere burua klasifikatzeko orduan. Hala ere, mutila sentitzen da, baina inguruak neska bezala hezi du, jantzi, tratatu.

Umetoki barneko garapenean, uneren batean, bere garunaren sexuazio prozesuan, Anek ibilbide femeninoa jarraitu ordez, maskulinora salto egin duela esan liteke. Ikerketek, BSTc (bed nucleus of the stria terminalis) seinalatzen dute: garuneko atal horrek, norbere burua neska edo mutil bezala etiketatzeraz eraman dezakeela ikusi da.

Munduan leku baten beharra

Anek mutila denaren kontzientzia du, ez da kapritxo bat, ez da desio bat, ez da aukeraketa bat ere. Besteontzat, neska edo mutil izatea aukera bat ez den bezalaxe.

Bere identitate sexuala modu armonikoan eraiki ahal izateko, Anek mutil izen bat erabiltzea eskatuko du beharbada, bere arropa estilo propioa erabiltzen utzi beharko zaio, bera den bezala izaten eta jolasten utzi. Lehenbailehen.

Datozen etapak aurreikusi eta igarotzen lagunduko diogu. Munduaren kontrako borroka gutxitzen lagunduko diogu. Sexu rola malgutuko ditugu, beste haur guztiekin egitea komeniko litzatekeen bezala... Badakigu-eta neska paperean sar dadin egin ditzakegun esfortzu, terapia, triki-mailu eta konplotek mina eta zoritxarra besterik ez diotela ekarriko.

Kasu gehienetan, neska edo mutil sentitzen gara. Nahiz eta "haur transexual" kontzeptua erabiltzen dugun, adibidez, Aneren kasuan, soilik neska edo mutil kontzeptuak erabili beharko genituzke. Besterik ez, besteak bezala, anitzak direlako. Izan ere, egokitu behar dena, ez da haurra bera, hura begiratzen duen familia, lagun eta gizartea baik.

Baliabide gehiago: chrysalis.eus

Nerea Sancho Esnaola

Arremanitz Kooperatiba ■



Bizkaia Park abentura parkean.

Itsasondoarrak Bizkaian

Aurreko maiatzaren 26an Guraso Elkarteko 4.,5. eta 6. mailako gurasoek antolatuta, Gueñeseko "Bizkaia Park" abentura parkera joan ginen.

35 lagun inguru elkartu eta autoetan joan ginen.

Bertan, haur eta guraso, tirolinan, eta barruko hainbat zirkuitoetan ibili ginen. Beldurrik ez zen ageri!

Egun ederra pasatu genuen.

Eguraldiak ez zuen gehiegi lagundu, baina orduan ere aurpegi ona jartzen asmatu genuen (Batez ere euri zaparrada bota zuenean barruan geundelako).

Hara joateko bidea luzea izan zen arren, merezi izan zuelakoan gaude. ■

Harpidetza bidezko plataformak



Merezi al du harpidetza bidezko plataforma digital bat kontratatzea gure aisialdirako?

Gero eta azeleratuago dagoen gizarte batean bizitara. Lana eta gure eguneroko eginkizunetatik kanpo ia-ia ez dago betarik aisialdirako tartetxo bat hartzeko.

Dagoeneko, jendea aspertu da pelikulak eta serieak aurkitzeko eta deskargatzeko webguneak bilatzeaz. Gainera, egia da gaur egun dagoen legedia gerroz eta zorrotzagoa dela webgune horientzat. Webgune asko itxi egin behar izan dituzte, hainbat irregulartasunengatik. Horren ondorioz, gero eta jende gehiagok uko egiten dio webgune horien bila denbora galtzeari, eta beste aukera batzuk aukeratu dituzte.

Enpresa batzuk, fenomeno hori gertatzen ari dela ohartzean, plataforma digital deituriko webguneak sortzen hasi ziren. Famatuenak HBO eta Netflix dira. Dena den, bi horiez gain, beste hainbat badaude merkatuan. Plataforma hauek ikusi, eta pixka bat aztertuko ditugu.

- **FILMIN:** Espainian sortutako plataforma digitala da. Hileko zortzi euroko prezioa du. Plataforma honen bereizgarria da film eta telesail independente asko dituela ikusgai. Serie komertzialetatik kanpoko zerbait bilatzeko aukera ona ematen digu.

- **RAKUTEN:** Plataforma hau pelikulan dago zentratuta, telesailak ere badituen arren. Bi aukera daude ordainketa egiteko: harpidetza bidez edo pelikula bakoitzeko ordainduta. Katalogoa oso komertziala da, eta umeentzat/gazteentzako edukia handia da.
- **HBO:** Plataforma famatuenetako bat da. Bertan ikus daiteke azken uretan famatua egin den Games Of Thrones telesaila. Hala ere, telesailen katalogoa eta haien kalitatea oso onak dira. Harpidetzak hilean zortzi euro balio du, eta ez du iraunkortasunik eskatzen. HBO enpresak berak, telesail asko egiten ditu, gainera.
- **NETFLIX:** HBO-ren lehia zuzena da. Honek ere bere telesailak sortzen ditu. Famatuenetarikoa Stranger Things da. Kuota baxuena zortzi eurokoa da, baina beste kuota formatu batzuk aukeratzeko ahalmena eskaintzen du Netflix zerbitzuak. Honek ere ez du iraunkortasunik eskatzen.
- **AMAZON PRIME VIDEO:** Badirudi Amazonek ere, mundu honetan sartu nahi duela. Beraien katalogoa oraindik ez da handia, baina denbora pasatu ahala, handitzen ari da. Gainera, beraien telesailak ere egiten hasiko dira, hala nola,

The Lord Of The Ring telesail bihurtuko dute. Amazona Prime Video zerbitzua doakoa da Amazon Prime kuota ordaintzen dutenentzako. Oraingoz ordainketa hori bakarrik ezarri dute.

- **CRUNCHYROLL:** Plataforma hau publiko berezi batentzat egina dago. Japoniako marrazki bizidunak gustatzen zaizkion publikoarentzat, batez ere. Bertan, genero askotako marrazki bizidunak ikus daitezke (Animea eta Manga). Hori bai, dena azpigitulekin. Prezioa merkea da, hilean bost eurokoa. Bertan Naruto eta One Piece-eko azkeneko denboraldiak ikusgai daude.

Baita ere, esatekoa da Internet eta telefonia zerbitzua ematen duten konpaniek ere plataformak kontratatzeke aukera ematen dutela. Adibidez, Movistar enpresak Movistar+ zerbitzua dauka, eta bertan pelikulak eta telesailak ikusteko kateak kontrata daitezke. Euskaltelen Replay izeneko zerbitzua ere antzekoa da.

Ikusten den bezala, aukera asko ditugu. Bakoitzak erabaki behar du zer ikusi nahi duen. Galdera da: zer nahiago duzue, plataforma bat kontratatu eta edukia berehala edukitzea edo denbora-pasa ibiltzea nahi duzuen telesaila edo pelikula aurkitu eta deskargatu arte? ■

A young man with short brown hair is sitting on a black metal bench. He is wearing a white t-shirt with a graphic that says 'CHORDS', blue denim shorts, and black sneakers with neon green accents. Behind him is a parking lot with several cars, including a white car and a dark blue car. In the background, there is a large building with many arched windows and a flagpole with a flag. The scene is outdoors during the day.

Aitor Garmendia

*Aitor Garmendia Etxeberria
2000 urtean jaiotako gazte
itsasondoarra dugu. 18 urte ditu,
eta Kazetaritza Graduko lehen
urtea egiten ari da Bilbon. Bere
zaletasunen artean,
gustukoenetako bat du
txirrindularitza.*

Herriko eskolan ibilia zara. Nolakoak dira hango oroitzapenak?

Oso onak. Gaur egungo unibertsitatearen eta Ordizian eskolan ibilitakoen aldean, oroitzapenak oso onak dira. Hemengo esperientzia askoz ere gertukoagoa izan zen. Egia esan, Ordiziarra joan ginenean hemen ikasitakoek asko balio izan ziguten.

Ez zineten asko izango, ezta? Taldea txikia izango zen.

Nik gogoratzen dudanaren arabera, sei izan ginen gelan, hamabi ere bai beste ikasurteren batean, baina sei inguru. Urte asko pasatu ditugu elkarrekin. Orain berriz, 100 gara klasean.

Herriko eskolatik salto egin behar izan zenuten Ordizia. Nora joan zinen?

12 urte nituela Oianguren instituturara joan nintzen DBH, bigarren hezkuntza, egitera. DBHko lehen urteak hemendik, Itsasondoko eskola girotik, nahiko desberdinak izan ziren. Ikasle asko, giro hotzagoa edo urrunagokoa, baina ohitzen joaten zara. DBHko lau urteak eta batxilergoko bi urteak bertan egin nituen.

Batxilergoan emaitza oso onak izan zenituen, ezta?

Bai, letretatik jo nuen, hori zen gustatzen zitzaidana; eta gustukoa zenez, eskoletan adi egonda, emaitzak onak izan dira. Ikastea beti kostatzen da, baina gustukoa beti da errazago.

Eta zer moduz hautaprobak?

Ondo. Ikasgairan bat, gatzelania, esaterako, zailagoa egin zitzaidan, baina ondo. Egia da egun bakaurrean jokatzeko duzula ikasitako gutzia, eta urduritasuna nabaritzen dela, baina urte gutzia hori prestatzen pasatu eta gero, ondo prestatuta zoaz.

Kazetaritzaren adar asko lantzen dira: historia, ekonomia, idazketa, irakurketa... eta orokorragoa iruditzen zait.

Hasiera batean, pilotarekin batera hasi nintzen, baina aukeratzeko ueña iritsi eta txirrindularitza hautatu nuen.



Azken saltoa unibertsitatera egin duzu. Zer ikastea aukeratu duzu?

Kazetaritza. Alor horretako zerbait nahi nuen, eta azkenean kazetaritza hautatu nuen. Orain hasi naiz, irailan, eta oraingoz gustura nago. Bilbon ikasten dut, eta bertan igarotzen dut astea. Beraz, saltoa nahiko handia izan da, baina horretara ere ohituko gara.

Nondik sortu zaizu kazetari-tzako grin hori?

Ez dakit, galdera ona da. Gauza asko gustatzen zaizkit, baina bat aukeratu behar nuen. Esaterako, historia polita da, eta gustatzen zait, baina historia bakarrik ikasteak ez ninduen konbentzitu. Kazetaritzaren adar asko lantzen dira: historia, ekonomia, idazketa, irakurketa... eta orokorragoa iruditzen zait.

Etorkizunean kazetari bezala ikusten al duzu zure burua?

Ez dakit, lana aurkituz gero, hori ibiliko gara.

Kirolaren arloan izango balitz?

Ondo egongo litzateke, baina beno, bestelako gaiak ere gustatzen zaizkit.

Hemezortzi urte dituzu eta Itsasondoko garai bateko kontuak agian ahaztuta izango dituzu. Dena den, aipatzeko oroitzapenen bat gordetzen al duzu?

Gauza asko ditut gogoan. Modaren bat sortzen zen, eta denok horretan ibiltzen ginen. Pilotan? Ba, hilabetez dena emanda frontoian pilotan jokatzen. Futboleko? Berdin... Raketarekin, pin-pon-ean, bizikletan... beste horrenbeste. Beitiko aldapa izugarri gustatzen zitzaigun, bertan zartateko ederrak hartutakoak gara, patinetarekin edota patinekin.

Agian, garai hartan sortuko zitzaizun orain duzun zaletasuna? Txirrindularitzaren zaletasuna, alegia.

Baietz uste dut. Hasieran pilotan hasi ginen hemen Itsasondoko, 8 urterekin-edo. Pilotan oso gustura ibiltzen nintzen, baina betidanik asko gustatu zait txirrindularitza. Bai hemen egiten zen ziklo-krosatik, baita bizikletan asko ibili izan garelako herriari bueltak ematen. Horrez gain, herriko lagun batzuk ere animatu ninduten txirrindularitzaren mundura. 12 urte bete arte amak ez zidan txirrindularitzan murgiltzen utzi, eta DBH hasi eta ikasketak ondo neramatzala ikusita, orduan hasi nintzen. Hasiera batean, pilotarekin batera hasi nintzen, baina aukeratzeko ueña iritsi eta txirrindularitza hautatu nuen.

Txirrindularitzan urte guztian ibiltzen zara, ezta? Bai ziklo-krosean, baita errepidean ere.

Bai, lehen esan bezala Itsasondoko ziklo-krosa egiten zen, eta niretzat egun hori urteko egunik onenetako bat izaten zen. Goizean goizetik bizikletak hartu eta zirkuitoan bueltak ibiltzen ginen; gero karrerak ikusi, gero berriro zirkuitoan barrera ibili... Niri hasieran ziklo-krosa gustatzen zitzaidan, baina

infantil mailan, 12-14 urte bitartean, oraindik ez da ia karrerarik egiten, beraz, errepidean hasi nintzen, eta gustatu egin zitzaidan. 14 urtetik aurrera, kadete mailan, ziklo-krosean lehiatzen hasi zaitzke, eta horretan hasi nintzen. Orain urte guztian zehar ibiltzen naiz; udaberri-udan errepidean eta udazken-neguan ziklo krosean.

Zer nahiago duzu neguko giroa ala udako giroa?

Ziklo-kroseko giroa, negukoa, oso polita da: karrera bera, karrera aurreko giroa, karrera ondorena... Normalean karabanarekin joaten gara, jende asko joaten da horrela. Egun guztia da polita orokorrean, eta karrera bera ere bai, noski. Errepidean ez dago egun guztiko giro hori, baina karreran bertan, pelotoian, sortzen da giroa, eta lasterketak ere oso politak dira. Guztietan asko disfrutatzen dut, eta taldekide eta gainerako txirrindulariekin harreman oso ona sortu da.

Orain zein mailatan zaude?

Jubenil maila amaitu berri dut, Ampo-Goierriko T.B.n eman ditut azken bi urteak, eta orain 23 urtez azpiko maila hasiko dut. Bai ziklo-krosean, baita errepidean ere, afizionatu mailan lehiatuko naiz hemendik aurrera. Maila honetan salto handia nabaritzen omen da, eta seriotasuna behar da, ikasketak eta txirrindularitza uztartuz bertie.

Orain arte ikasketak ongi joan dira, ezta? Matrikula eskuratu zenuela jakin dugu.

Bai. Ikasketa aldetik ez dut inoiz arazorik izan, eta batxilergoan oherko matrikula eskuratu nuen. Orain unibertsitatean gehiago ikasi beharko dut, eta txirrindularitza gehiago entrenatu; baina beno, moldatuko naizela uste dut.

Bilbon pasatzen duzu astea, astelehenetik ostiralera. Bizikleta eramango duzu bertara, ezta?

Bai. Jadanik ibili naiz zertxobait, eta topatu ditut bizikletan ibiltzeko leku politak. Hori bai, Bilbora ohitu behar izan dut (barrea). Semaforoak, trafikoa... hemen, Itsasondon, horrelakorik ez dago. Itsasondotik Bilbo bezalako hiri batera aldea dago, alor guztietan, eta horretara moldatzen ari naiz.

Ikasle pisu batean zaude?

Bai, orain arte nirekin ikasi duten Ordiziako lagun batzuekin.

Zein da zure ibilbidea txirrindularitzan?

Gauza handia ez da izango, baina egia da postu onak ere egin ditudala. Lehen urteetan jolasa zen, baina ziklo-krosean kadeteetako bigarren urtean Gipuzkoako txapel-duna izan nintzen; eta, postu polit batzuk lortuta, Espainiako txapelketetara ere joan nintzen. Errepidean postu on-onik ez nuen lortu, baina beti ibiltzen nintzen erasoetan eta ihesaldietan. Gero jubenetako lehenengo urtean, ziklo-krosean, podium batzuetara igo nintzen. Aurten, hasiera batean, errepidean ez nintzen oso ondo hasi, baina abuztu aldera nahiko karrera politak egin nituen; bat irabaztea ere lortu nuen. Ziklo-krosean Gipuzkoako txapel-duna izan naiz aurten, nahiko podiumetara igota, eta lasterketa bat irabazita. Espainiako Txapelketan ere nahiko ondo ibili naiz, bederatzigarren postua lortu dut.

Hemendik aurrera zein da zure asmoa?

Horrela jarraitzea da asmoa, baina zaila izango da. Orain, urrian, ziklo-krosean hasten naiz, eta maila berri bat dela kontuan hartu behar da, lasterketak berrogei minututik ordubetera pasatzen dira. Saltoa handia da, beraz. Lehenengo karre- rek, baita lehenengo urteak ere, ikasteko balioko dute, hobetzen joateko. Errepidean berdin, saltoa handia da; beraz, lehenengo ikasi eta honetara ohitu beharko dut.

Afizionatuetan adin tartea nahiko handia da, ezta?

Bai. 23 urtez azpikoa den mailan, gehienez bost urte zaharragoak direnekin lehiatzen duzu, eta aldea handia da. Zer esanik ez elitekoekin lehiatzen dugunean. Saltoa handia izango da, baina honetatik ere ikasiko dugu.

Amets bat txirrindularitzan?

Profesionala izatea gustatuko litzaidake, baina errealista izanda, zaila da. Aurtengo nire helburua maila honetara ohitzea eta ikastea da; zer egiteko gai naizen ikusi nahi dut, eta gero ikusiko da zer gertatzen den. Bai ziklo-krosean, baita errepidean ere, ametsak asko dira, baina garrantzitsua da hankak lurrean izatea.

Ikasketei dagokienean, kaze- taritza ikasi, bukatu, eta ikusi nahi duzu ea alor horretan aukerarik dagoen, ezta?

Bai, ateratzen dena, edozer. Kirolaren inguruan lan egitea gustatuko litzaidake, baina beste gai askoren inguruan ere bai.

Nola ikusten duzu zure burua unibertsitatean?

Oraingoz galduta (barrea). Campusa jada ezagutzen dut, baina hemendik hara aldaketa dago. Aurreko eskolatik oso desberdina da, eta jende asko, jende ezberdin asko dago. Bertako aniztasuna handia da, eta hortik ere asko ikasi daiteke. Inguru berri hau ezagutzea ere oso aberasgarria izango da niretzat. Horretaz gain, etxetik kanpo nago, lagunekin bizitzen... eta hortik ere asko ikasiko dudala uste dut.

Pilotan eta txirrindularitzan ibiltzen zinen, baina zergatik aukeratu zenuen txirrindularitza?

Pilotan hasi nintzenean ere txirrindularitza oso gustuko nuen, baina oraindik ez nintzen ibiltzen lasterketetan, Beitiko eta Altzagarateko igoerak ziren urteko lasterketa ba-



Gipuzkoako Itzuliko taldeko saria irabazita.



Iruñerriko Itzuliko azken etapan eskapada.



Zuhatzan Itsasondoko eskolako lagunekin.



Iazko Torrelavegako ziklokrossean.

karrak (barreak), baina betidanik nahi nuen txirrindularitzan lehiatu. Hasi eta berehala jakin nuen baietz, gustatzen zitzaidala. Hasieran gogoz hartu nuen, baina sekula lasterketarik egin gabekoa nintzen, ez nengoen ziur nire erabakiaz. Halere, lasterketa bat egitea nahikoa izan zen, gustuko nuen.

Aukeran zer nahiago duzu txirrindulari profesionala izatea edo kazetari famatua?

Txirrindulari profesionala, dudarik gabe. Kazetari famatua izateak ardua eta buruhauste ugari dakartza. Kazetaria izanez gero, maila apalean nahiago.

Zure lagunei gustatzen zaie txirrindularitza? Jarraitzen zaituzte?

Bai, tarteka bai, eta lasterketak gertu badira, errazago. Hemendik, Itsasondotik, nahikoa pasatzen dira. Herritik pasatzea polita izaten da.

Zer moduz sentitzen zara Itsasondon?

Oso gustura. Bilbora joandakoan sumatu dut aldaketa. Hemen lasaitasuna da nagusi, herritar ia denak ezagutzen dituzu, eta aberasgarria da. Oso-oso gustura sentitzen naiz Itsasondon.

Herriko zerbait aldatuko zenuke? Zerbait faltan?

Beharrezkoak diren zerbitzuak baditugula uste dut. Kiroldedia, institutua eta beste hainbat ekipamendu Ordizian ditugu, eta orokorrean beharrekota dena badugu hemen bertan. Trena ere bertan dugu, eta hori oso garrantzitsua da. Herri honen onena da herri txikien lasaitasuna duela, baina oso ondo komunikaturik dagoela.

Hala ere, zerbait aldatzekotan, mendi inguruari garrantzia gehiago eman beharko litzaioke iruditzen zait; bide batzuk konponduta eta beste batzuk garbituta, esate bate-

rako. Minak azalera ekartzea ere ideia ona izango litzateke; izan ere, herriak duen ondarea ezagutaraztea garrantzitsua dela iruditzen zait.

Autoko baimena ateratzeko asmorik baduzu?

Bai, saiatuko naiz. Jadanik badut zati teorikoa, orain praktikoa ateratzea falta zait. Hau ere aldaketa bat izango da, alde batetik bestera joateko aukera izango dut, inoren beharra izan gabe.

Lehen esan duzu ziklo-kroseko karreretara autokarabanarekin joaten zaretela. Horrek ere zuen arteko giroan lagunduko du, ezta?

Bai. Errepidean ez dago horrelakorik, baina ziklo-krosean bai. Aurreko eguna polita izaten da, autokarabana festa izugarria. Pasa den urtean, karreraren batean, 200 bat autokarabana elkartu ginen. Giro polita sortzen da. ■

Itsasondoko jaiak

Il railaren 20an hasi eta 24ra arte herriko jaiak ospatu genituen. Adin guztietako herritarrak plazara irten eta jai giroan gozatzeko aukera izan genuen, jai batzordeak antolatutako egitarau oparoari esker.

Ostegunean, eskertza moduan, jubilatuei merienda goxo-goxoa prestatu zieten haur eta gurasoek, ekitaldi xumea bezain polita izan zen.

Ostiralean, ohiturari jarraituz, zinta karrera izan zuten herriko haurrek. Meriendatu ostean, Arbelaitz elkartearen pregoia entzun genuen, ijitoa jaistearekin batera. Gogotsu eta giro ederrean igo ziren balakoira, eta hasiera ederra eman zieten jaiak! Jarraian, Batukaleroak taldeak herriko kaleak danbor hotsez alaitu zituzten: "A zer martxa, kuadrilla!".

Iluntzean, herri afariaren bueltan, 160 bat lagun elkartu ginen eta frontoi berria estreinatuz, ederki afaldu genuen. Ondoren, Ttipika taldekoek dantzan jarri gintuzten guztiok, eta ordu txikiak arte luzatu zen parranda.

Larunbatean, haurrak indartsu esnatu ziren, eta Beitiko igoerari ekin zioten. Ondoren, ajea pasatzeko moduko bazkaria prestatu zigun Ikerrek, "mundiala!". Eta, bazkalostean, siestarako gogoak kendu zigun Andoni Ollokiegik: "Datorren urtean ere hemen nahi zaitugu, artista!".

Arratsaldean, tailerren ondoren, Oskar sarietako eszenatoki bihurtu genuen frontoia, glamourrez beteriko aurkezle eta guzti! Gure herriko izarak taularatu eta dantza nagusi izan bazen ere, bestelako erakustaldiak izan genituen: "A zer martxa duten gure gaztetxoek!". Jarraian, mozorrotutakoei Oskar-rak banatu genizkien, eta bakoitzari merezitako saria eman genion.

Iluntze aldera, Ongizate taldekoek hanburgesak prestatu eta frontoia berriro ere jendez lepo izan genuen. Egunak iluntzearekin batera, Elektrotxufila Elektrotxaranga-ren kontzertua izan genuen, giro paregabea jarri zuten, eta berriro ere, parranda ordu txikitara arte luzatu zen.



Igandean, haurrak gustura ibili ziren puzgarrietan. Bitartean, plazan, hamaiketako ederra eskaini zigiten, eta jarraian Aitor Furundarenarekin kantu-bazkaria izan genuen. Arratsalde partera, buruhandiak plazara irten ziren eta korrika saio batzuen ondoren, jaiari amaiera emateko, Arbelaitz elkarteok berriro ere udaleko balakoira igo ziren. Pregoa irakurri zigiten, hurrengo urterako erreleboa pasaz guraso elkar-teari!

Jaiari amaiera emateko, pregoilariak sagardo dastaketa eskaini zigiten plazan.

Eskerrik asko antolakuntzan eta ekintzetan parte hartu duzuen guztioi! Datorren urtera arte! ■

Jai hasierako pregoia

Arbelaitz elkartetik gatoz
2018ko festei hasiera emateko asmoz
Goza dezagun festaz, elkarrenganako errespetoz

Umek, unek, gogotsu jolas eta zinta karrera,
merienda, salto, parre, negar... ta Beitiko igoera.
Plaza bete jende eta ijitoaren jaitsiera,
iluntzen duenean haur, gazte, zein agure afaltzera.

Mahai inguruan eseri eta afaltzen herria,
Piztuko zaigu denori begia eta irria.
Gauean, busti dezagun sano eztarria,
Dantzarako presta ditzagun hankak eta gerria,
Horretarako dauzkagu Plaza eta frontoi berria.

Txarlot, Kantinflas, Maria Luixa eta Joxe Mari,
izango da "la pera",
Donostiako zinemaldin pare jarriko gera.
Nahi duenak badauka ijito herrian glamurrerako au-
kera,
Egoardian zalantzan datoena ere, etorri dadila baz-
kaltzera.
Sinistak lanak ditu, herri guztiari jana emango dion
paellera.

Igandez, goiz eresia atabalero eta txistularik,
Haurrentzako egun guztian jolasak, buru haundi eta
puzgarrik.
Haurren jolasetan ea ez zaigun galtzen gurasorik.
Bazkaltzeko janari goxoak, soinu eta kantua, ea ez
duen egiten euririk.
Festak amaitzeko Arbelaitz elkarteak emanda ez da
faltako sagardorik.



Jai amaierako pregoia

Adio festak, bihar astelehena
Lehengora berriro lagun
Zein egun ta lagunarte ederrak pasa ditugun
Abia gaitezen! Gaur etxean ez direnak
Hurrengo urtean izan ditzagun
Guraso elkarte, 2019an
Pregoa irakurri eta festak abiatzeko arduradun

Eskola txikien jaia

Ekainaren 10ean, eskola Txikien festaren XXXI edizioa ospatu zen Oikian, Zumaiako auzoan.

"Eskola txikiak bizirik, herri eta auzo txikiak bizirik" lelopean egin zuten festa, herrian eskola berri bat egiteko.

Giro eta eguraldi onarekin hasi zen, hanbat ekintza egiteko aukera zegoen, puzgarriak txikiengat, euskal kirolak, eskulaneko gune bat, pailazoak, apar festa, zaldiak eta pottokak umeak ibiltzeko, musika...

Bazkal Orduan ere, aukera ugari zeuden; paella, ogitartekoak, eta kus-kusa haragiarekin.

Eguna bukatzeko, azken uneko ekitaldi bat egin zen zezen txikiekin, eta haurrek primeran pasatu zuten.

Gure herriaren izenean, Itsasondotik, talde txiki bat joan zen, eta egun polita pasatu genuen. ■



Eman eskua etorkizunari

Ekainaren 10ean Euskal Herrian inoiz egin den giza-katerik handiena osatu zen, Gure Esku Dagok antolatuta. Giza katearen aldarria Euskal Herriaren erabakitzeko eskubidea izan zen eta Donostia, Bilbo eta Gasteiz lotu zituen, 202 kilometroko ibilbidea eskuz esku lotuta.

Ibilbide osoa egin ahal izateko, 100.000 herritarren partaidetza eskatu zen, baina azkenean 175.000 pertsona izan ginen bertan parte hartu genuenak, antolakuntzaren aurreikuspen guztiak gaindituz.

Giza kate horretan, Itsasondok ere bere lekua izan

zuen, Arabako Murgia herrian, hain zuzen ere. Herri-ritik joandakoak 90 inguru izan ginen, autobusean zein autoetan.

Itsasondoko Gure Esku Dago taldeak lerro hauek aprobetxatu nahi ditu herritar guzti horiek zoriontzeko eta eskerrak emateko.

Ez dugu inongo zalantzarik, Euskal Herriak erabakitzeko eskubidearen alde egindako urrats handi horretan, Itsasondoko herriak ere bere bultzadaxoa eman du!

Mila esker! ■



Garagardo azoka

Ekainaren 15ean eta 16an giro ederrean garagardo azoka ospatu zen herriko plazan. Arbelaitz elkarteak antolatuta, hamabi garagardo dastatzeko aukera izan genuen, ukondo eta saltxitxa goxoez lagunduta. ■



San Juan sua

Urteetako tradizioa mantenduz, aurten ere San Joan su ederra izan dugu Itsasondon. Sardina erreak jan eta sagardo tragoxka batzuk edateko aukera eman ziguten Arbelaitz Elkarteko kideek. Ondoren, sorginak plazara irten eta suaren bueltan, erratzak astinduz eta zapiak aireratu, ikuskizun ederra eskaini ziguten. Urtetik urtera gehiago ez al dira?

Sua txikitzearekin batera, esapideak dioen moduan, txarrak erre eta onak gorde genituen. ■



2018ko Urkiko iraileko jaiak

Irailaren 14an, Gurutze Deunaren egunean, eman zitzaien Urkiko jaiak hasiera, eta meza ondorengo hamaiketakoan elkarteko jangela bete zen. Eguerdian, bazkaria egin zen eta iluntzean erromeria, Jon Ostolaza eta Lutxurdio trikitilariekin, jende asko eta elkartu zen bertan, umore oso onean.

Irailaren 15ean, larunbatean, lagun arteko afaria egin zen elkartearen, eta ondoren Iñaki Laja eta Andoni Larrañaga trikitilariekin erromeria egon zen goizaldera arte, dantzari prestu eta ugariak lagunduta.

Irailaren 17an, igandean, meza, hamaiketako eta bazkaria izan ziren lehenik, eta jende ugari bildu zen bertan.

Arratsaldean herri kirolak izan ziren. Arrospidek eta Txikia IVak, Ugartebururen eta Larrañagaren aurka jardun zuten aizkoran. Bigarrenak nagusitu ziren lehia estu baten ondoren, bi kolperen aldearekin. Tartean Goenatxo IIIa harri-jasotzaileak erakustaldiak egin zituen 200 kiloko errektangularrarekin, 11 arroako harri kubikoarekin eta 100 kiloko bolarekin.

Iluntzean erromeria egin zen, egun guztian zehar trikitia jotzen aritu ziren Laja eta Lutxurdio trikitilariekin. Plaza dantzarietz bete-bete eginda egon zen.

Urkiko jaien alde zozketatzen den saskiaren zozketa egin zen azkenik, festei bukaera emateko.



Eguraldia lagun izan dugunez, oso jai alaiak eta jendetsuak ospatu ditugu. Ea hurrengo urteetarako ere eusten diogun euskal erromeri mota honi, jendearen parte-hartzea eskertuta. ■



Gau magikoa

Urriaren 27 eta 28an Urkiko Elkarteak, pasa gendun aurtengo gau magikoa, eguraldiak ez ba zigun gehiegi lagundu ere, asteburu zoragarri bat pasatzeko aukera izan gendun. Ultzamako Parke Mikologikoko arduradunekin, Amaia eta Jabi, perretxikoak bildu, ikasi, dastatu eta gure ingurutaz gozatzeko parada izan gendun. Gure eskerrak baita ere Iker Mendizabali, otordu goxoak prestatzeagatik. Portatu haiz oraingoan ere. Detorren urtean berriz errepikatzeko moduko esperientzia. ■



(natura)

Osasunerako basoak: Shinrin-yoku

Japoniako lurraldearen %67 basoak estaltzen du. Estresatutako gizarte lehiakorrari arnaguneak eskaintzeko, Japoniako baso arduradunek 1982an Shinrin-yoku edo baso-murgilke- ta delakoari hasiera eman zioten, 50 baso-sail jardun horretarako izendatuta.

Hitz hauen esanahi zuzena “basoaren atmosfera irenstea” da, eta japoniarren aspaldiko ohituretan oinarritzen da ekimena. Japonian, sintoismoak eta antzinako budismoak naturaren espirituak beneratzen dituzte. Egun ia hiru milioi japoniar ari dira praktika hori erabiltzen, eta mundu guztian zehar bizkor zabaltzen ari da jarduera.

Baso-murgilketa egiteko modu bat baino gehiago dauden arren, beti ere denbora lasai hartzea eskatzen du, zentzu guztiekin sentituz: sakon arnastu, airearen kontaktua naba-ritu, hezetasuna usaindu, hostoen testurak ukitu, zuhaitzen arteko haizeari kasu egin, txoriak entzun...

Praktika honi sendagai fisiko eta psikikoen artean leku bat egin diete Japonian. Hainbat zientzialariek frogatu ahal izan dutenez, osasunean eragin zuzena du: tentsioa jaitsiz, immunologia-sistema indartuta eta estresari lotutako hormonak zein bihotzekoen erasoak gutxituta egiten digu mesede.

Terapia berritzaileetan gehiegi sinisten ez dutenek ere hala diote: denbora batez eguneroko arduretatik ihes egi-

teko gai bazara, estresa gutxitzen da, horrek dakarren onura psikologikoarekin. Horri, kutsadurarik gabeko airea arnastu egiten den denbora bateko ibilaldia gehitzen badiozu, onura garbia lortzen da, dudarik gabe.

Horrez gain, agian, arnastu eta irentsitako basoko bakterio eta zelula-bakarreko onddoak hesteetako flora aberastu dezakete; horrela, gorputzaren erreakzio autoimmuneen aurkako erantzunak hobetuz. Hala ere, nahiago dute terapia iraultzailea baino gehiago, Shinrin-yoku ohitura osasungarrien bilduma bezala hartzea.

Edozein baso onuragarria izan badaiteke ere, baso-murgilketarako egokienak zuhaitz handiak eta zaharrak dituzten baso helduak dira. Hori da, beraz, baso helduak babesteko beste arrazoi bat. Lehendik ere klima aldaketaren aurkako baliabide gisa, airea garbitzeko, lurzorua, ura eta bioaniztasuna kontserbatzeko erabiltzen bagenituen, orain gure osasunerako ere beharrezkoak dira.

Japoniako ikertzaile batek zioen moduan, giza-eboluzioaren %99,9 giro naturaletan garatu da. Gure fisiologia-funtzioak inguru horietara egokituta jarraitzen dute, eta gure erritmoak inguruneak dituenarekin sinkronizatzen direnean, ongizatearen zirrara senti dezakegu. Horregatik kanpo-librean janariak ere zapore hobea izaten du. ■



Euskararen atala

Euskara txukuntzen

Hona hemen gure egunerokoan euskara erabiltzean egiten ditugun hanka sartzeen zerbait adibide. Saia gaitezen zuzentzen!

Euskara "makarronikoa"	Euskara txukuna
Orain zer egiten duzu?	Orain, zer egiten ari zara?
Ettxerarte lagunduko dizut.	Etixeraino lagunduko dizut.
Ni pertsonalki joanen naiz	Ni neu joanen naiz.

Euskaraz bai, umorea ere bai

Gizona sukaldean egunkaria irakurtzen ari dela, emaztea etorri eta... ZASS!! Kristoren ostia ematen dio zartagin batekin.

– Baina maitia, zer gertatzen da?

– Zer gertatzen den? Zure praktetako poltsikoan papertxo bat topatu dut, Marilu izena eta telefono zenbaki batekin.

– Aaahhh!!!! Lasai emakumea!!! Zaldi lasterketa ikustera joan eta apustua egin nuen zaldiaren izena eta apustu zenbakia dira.

ZASS!!! Beste ostia bat emakumeak, oraingoan lapikoarekin!!

– Baina... eta orain zer? –gizonak.

– Eta orain zer? Zure zaldia telefonoan dagoela, eta zu jartzeko esan didala!

Albisteak

Desgaztearekin batera deseuskalduntzea gertatzen al da?

Euskararen jakintza maila neurtzeko froga egin du Allartean blogak. Adinak gora egin ahala, euskararen erabilera behera egiten du, Eustat-eko datuen arabera.

Euskararen jakintzaren bilakaera ikusteko, hamar urteko epea hartzen duen azterketa longitudinala egin du blogak. Hiru neurketaldi egin dira 2006, 2011 eta 2016 urteetan. Ondorio nagusia honakoa da: zazpi puntu jaitsi dela euskaraz dakitenen portzentajea.

Guztia irakurtzeko: www.argia.eus



(errezeta)

Ahuntz gazta hojaldrea tipula karamelizatuarekin

Osagaiak

Hojaldre plantxa 1
Arrautza gorringo 1
4 Ahuntz gazta xerra

Tipula ertain 1
2 gurin ontza
60 gramo azukre
2 goilarada oliba olio

2 heldutako tomate
2 goilarada oliba olio
Tipula laurdena
Azenario erdia
2 goilarada azukre
Goilarada bat ezti

Prestaketa

Masa 4 zatitan moztu eta arrautza gorringoarekin margotu. Ondoren, labean eduki 20 bat minutuz, 180 gradutan.

Tipula marmelada prestatu: tipula su txikian jarri, juliana finean moztuta, gurin, azukre eta oliba olioarekin. Erregosi karamelizatu arte.

Tomate saltsarentzat: erregosi tipula eta azenarioa olioarekin. Kolorea hartzen doan neurrian, zatitutako tomatea gaineratu eta erregosi 10 bat minutuz.

Azkenik, azukre, ezti eta baso erdi bat ur gaineratu eta 30/40 minutuz egosi. Fin txikitu. ■




Juanan Jiménez
Altamira jatetxea. Ordizia
677 293 697



Aralar dokumentala

Aralarko ondare natural eta kulturalaren leiho izateaz haratago, hausnarketa eta go-goetarako bide ematen duen pelikula. Adituen adierazpenek eta mundu oniriko batego pasarteek, Nafarroa eta Gipuzkoaren mugan dagoen mendilerro honen balioa ezagutzera ematearekin batera, kontserbaziorako deia egin dute.

Azaroak 9, 18:30etan, dokumental emanaldia udal-etxean eta ondoren solasaldia.



AZAROA

- 5** Lurralde eta hirigintza lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 7** Herri Bizitza lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 7** Ongizate lan taldea | 19:00etan udaletxean
- 6, 13, 20, 27** Tipi Tapa paseoa (17:00 plazan)
- 9** Aralar, mundua leku den lurra dokumentala 18:30etan udaletxean eta ondoren solasaldia
- 10** Gaztain jana
- 17** Velma y Cris 19etan Eskolako aterpean
- 23** Kantu afaria
- 23** Konzentrazioa plazan | Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako nazioartzeko eguna aldarrikatzeko
- 28** Memoria tailerra (18:00 jubilatuen elkarteetan)
- 29** Bingoa (17:00 jubilatuen elkarteetan)

ABENDUA

- 1** Talo festa
- 3** Euskararen aldeko jaia
- 4, 11, 18** Tipi Tapa paseoa (17:00 plazan)
- 19** Memoria tailerra (18:00 jubilatuen elkarteetan)
- 20** Bingoa (17:00 jubilatuen elkarteetan)
- 24** Olentzero eta Mari Domingi | Haurrentzako kantu-hamaiaketakoa Arbelaitz elkarteetan

Telefono interesgarriak

Udaletxea	943 881170
• Gizarte Langilea	
• Udal Arkitektoa	
• Epaitegia	

Haurreskola	943 164831
Herri Eskola	943 887704
Arbel-Aitz Elkarte	943 881339
Lurdes Janari Denda	943 885236
Arrastoa Botika	943 882148
Medikuarenean Txanda Hartzeko	943 007635
Kaxintane Taberna	606 756551
Nautiko Taberna / Izaskun Hotela	943 880012
Izaskun Ilepaindegia	943 160285

Sasieta	943 161555
Traste Zaharrak	943 161590
Taxi (Ordizia)	943 881486

itsasondo2.0

Berriko Aldizkaria (((40: zk)) Abuztu-Urtarrak 2019)

Ale honetan parte hartu dutenak:

Amaia Salegi
 Asier Bazaga
 Belen Mendizabal
 Bizi Nahi jubilatuta elkarte
 Danel Etxeberria
 Eneritz Albizu
 Enma Arrondo
 Erkuden Mendizabal
 Eskolako haurrak
 Guraso elkarte
 Iker Mendizabal
 Iñaki Aizpuru
 Itziar Pildain
 Izaro Intxausti
 Juanan Jiménez
 Haurreskolako hezitzaileak
 Maddi Alberdi
 Maite Lasa
 Mikel Mendizabal
 Ruth Gomez
 Unai Aldasoro

itsasondo 2.0-k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Herritik kanpo bizi baldin bazara, eta, korreoz edo e-mailez, aldizkaria zure etxean jaso nahi baduzu, jarri gurekin harremanetan:

943 88 11 70

itsasondo2.0@itsasondo.eus

Lege gordailua: ISSN:
 SS-297-2010 2171-5572



Gipuzkoako Foru Aldundia

!
 GOGORAZTEN DIZUEGU
 HURRENGO ALEA
 URTARRILEAN IZANGO
 DUZUTELA ETXEAN

